



Ejko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

- | | |
|---|---|
| 1.- Sarrera |  |
| 2.- Mugiment sustatzaileak |  |
| 3.- Mugiment Ekintza Plana |  |
| 4.- Mugiment sareak |  |
| 5.- Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak |  |
| 6.- Eusfit Mugiment |  |
| 7.- Koordinazioa |  |
| 8.- Komunikazioa |  |
| 9.- Formazioa |  |
| 10.- Dirulaguntzak |  |
| 11.- Ikerketa |  |
| 12.- Zeharkako egitekoak |  |
| 13.- Adierazleen taula |  |
| 14.- Laburpena |  |



1.- Sarrera

Dokumentu honen bidez 2025ean landutakoaren ebaluazioa aurkezten dugu. Txosten honen helburu nagusia lan-programan ezarritako helburuen jarraipena egitea eta horien betetze-maila aztertzea da.

Mugiment egitasmoa erakunde ezberdinen arteko lankidetzan eta koordinazioan oinarritzen da. Hori dela eta, txosten honek Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak egitasmoari egiten dion ekarpena ebaluatzen du, betiere kontuan hartuta beste erakunde batzuk ere jarduera fisikoaren sustapenean lan egiten dutela Mugiment egitasmoaren baitan.

2025eko ebaluazioak aurreko urteetako egiturari eusten dio: 14 atalez osatuta dago eta txostenaren amaieran, atal bakoitzeko ondorio nagusiak eta urteko emaitza nabarmenenak (positiboak zein negatiboak) laburbiltzen dira.

Azpinarratu behar da, datu objektiboetan oinarrituta egon arren, ebaluazio hau iritzi tekniko bat dela eta modu horretan interpretatu behar dela.

Informazio zehatzagoa lortzeko, dokumentuan zehar dauden estekak kontsultatzea gomendatzen da.

2025eko mugarri nagusia Mugiment Ekintza Planaren aurkezpena izan da, urriaren amaieran gauzatua. Plan honen bizkarrezurra erakunde bakoitzak jarduera fisikoa sustatzeko hartutako **konpromisoek** osatzen dute. Aurkezpen honek aldaketa dakar egitasmoaren jarraipenean; izan ere, urtero-urtero planaren ebaluazio espezifikoak egingo da.

Horrela, 2026tik aurrera, urteko ebaluazioan konpromisoen betetzearena eduki nagusia izango da eta bi norabide izango ditu:

- sustatzaile bakoitzaren **autoebaluazioa** (konpromisoen betetze-maila)
- Idazkaritza Teknikoaren **azterketa globala**. Azterketa honek bi ikuspegi uztartuko ditu:
 - 2/2023 **Legeak** eskatutako neurrien betetzea.
 - **GAPPak** (Jarduera Fisikorako Munduko Ekintza Plana) ezarritako helburu estrategikoen gauzatzea.



2.- Mugiment sustatzaileak

Mugiment sustatzaileak dira Mugiment egitasmoaren ekimen ezberdinetan parte hartzen ari diren erakundeak eta, orohar, jarduera fisikoaren sustapenean bere aletxoak jarri nahi duten eragile guztiak. Bi baldintza bete behar ziren Mugiment sustatzaile izateko:

- 1- Gizarte aktiboa lortzeko lagungarriak izan daitezkeen ekimenak sustatu behar ditu erakundeak. Ekimen hauetako batzuk izan daitezke esaterako, orientazio zerbitzuak eta sareak edota Kiroltxartela Mugiment.
- 2- Mugiment sustatzaile bihurtu nahi dutela guri adierazi.

-  4 erakunde berri gehitu dira egitasmoa eta [128 sustatzaile](#) gara (Eusfit Mugiment ekimeneko ikastetxeak zenbatu gabe).

Hala ere, hemendik aurrera, Mugiment Ekintza Planaren garapenarekin, Mugiment sustatzailea izateko bi baldintza bete behar dira:

- 1- Mugiment Ekintza Planean [konpromisoak](#) hartu.
- 2- Hartutako [konpromisoen](#) urteroko autoebaluazioa bete.

3.- Mugiment Ekintza Planaren hasiera

Legealdi berriarekin Mugiment egitasmoa aro berri batean sartu da, eta horretarako, Mugiment Ekintza Plana, aurkeztu eta garatzen hasi gara.

-  Mugiment Ekintza Planaren [aurkezpen ekitaldia](#) egin da.
-  [Mugiment Ekintza Planaren oinarri dokumentala](#) argitaratu eta eztabaidatu da.
-  Planaren bizkarrezurra izango diren sustatzaile ezberdinen konpromisoak jasotzeko [aplikazio informatikoa](#) argitaratu da.
-  Mugiment Ekintza Planaren lehen konpromisoak argitaratu dira konpromisoen bilatzailean: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarenak, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailarenak, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarenak eta Bizkaiko Minbiziaren aurkako Elkartearnak.
-  Konpromisoak zehazten joateko eragile desberdinekin bilerak egin dira: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarekin, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin, Eusko Jaurlaritzako Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzarekin, Leioako Udalarekin, Athlon Kooperatiba Elkartearekin, Adembi, Deustuko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea eta Wellk enpresarekin.



4.- Mugiment sareak

Mugiment sareak arlo arteko lantaldeak dira, helburuetan jarduera fisikoa sustatzea dutenak. Sare hauek tokian-tokikoak dira eta Mugiment partaideak izan behar dituzte eragileen artean.

-  41 [sare daude](#) lankidetzaren jarduera fisikoa sustatzen, iaz baino 8 gehiago.
-  94 bilera egin dira Mugiment sare ezberdinetan Mugiment idazkaritza teknikoaren gidaritzarekin.
-  ESI ezberdinetako erizain komunitarioen parte-hartzea gero eta garrantzitsuagoa da. Udalerrietan jarduera fisikoaren sustapenean eragiteko gaitasun handia izan dezakete.

5.- Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak

Pertsona inaktiboentzako laguntza zerbitzuak, osasunaren eta kirolaren arloetako lankidetzan oinarrituta.

-  2025ean 54 [orientazio zerbitzu](#) aritu dira lanean, 2024an baino 6 gehiago. 5 Araban, 23 Bizkaian eta 25 Gipuzkoan. [Hemen](#) emaitzak.
-  Osakidetzako langileentzako 25 saio egin dira EAEko osasun zentro ezberdinetan.
-  Gipuzkoako osasun mentaleko sareko zentroetan 2024an hasitako bilerei jarraipena eman zaie, orientazio-zerbitzuak aurkezteko eta pazienteen bideratzeak sustatzeko.
-  [Osakidetzarekin elkarlana](#) gero eta estuagoa da. Pazienteak deribatzen dituzten osasun arloak gero eta gehiago dira: lehen arretako medikuntza eta erizaintza, lehen arretako fisioterapia, bihotz-errehabilitazioa eta osasun mentala.
-  Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzua duten udalerri zuzenduta, [I. Pauso Erronka](#) digitala antolatu da, Wellk aplikazioaren bidez bideratua izan dena. 3 aste iraun zuen erronkak eta 681 pertsonak eman zuten izena, nahiz eta aktiboki parte hartzen 395 egon ziren. Guztira 68.471.865 pauso erregistratu ziren.
-  Urrian, Valentziako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak [Jarduera Fisikoaren Preskripzio Planei buruzko III. Jardunaldi Nazionala](#) eman, Mugiment Ekintza Plana eta EAEko jarduera fisikoaren preskripzio eredua azaldu da.
-  Arabako ESIko lehen arretako profesionalei orientazio zerbitzuei buruzko saioa eskaini zaie.



6.- Eusfit Mugiment

Euskal ume-nerabeen sasoi fisikoaren monitorizazio sistema da.

-  Eusfit Mugiment aplikazioan hobekuntzak txertatu dira.
-  Parte hartu duten irakasleen balorazioa ona izan da.
-  DES, Deporte para la Educación y la Salud, elkarteak antolatuta Gasteizen egindako Praktika Onen Jardunaldian, Eusfit Mugiment ekimena aurkezteko aukera izan dugu. Mota honetako foroak interesgarriak dira Ikastetxeei ekimena gertutik azaltzeko.
-  Leioako Udaleko hezkuntza sailak antolatuta, Leioako ikastetxe guztiei Eusfit Ekimenaren aurkezpena egin zaie.
-  Ekimenaren hirugarren edizio honetan datuetan ez da esperotako igoerarik izan, geldialdia egon da partaidetzan: 57 ikastetxe (=), 121 irakasle (+% 9), 377 talde (-% 3,09) eta 5.343 ikasle (-% 10,04).
-  Hezkuntza Sailarekin koordinazioan arazoak izaten jarraitzen dugu. 2025-26 ikasturtean Berritzegunearen bitartez NOOC (nano open online course) ikastaroa antolatzekoak ginen Eusfit Mugiment gauzatzeko eta arazoak tarteko ezin izan dugu ikastaroa egin. Ondorioz, iazko ikasturtean bezala, atzerapena egon da 2025-2026 ikasturtea zabaltzeko prozesuan, hala ere, azaroan zabaltzeko ahal izan dugu eta irakasleekin lehenengo bilera egin.
-  Gorputz hezkuntzako ikasgaikoak ez diren, DBH-en ematen den *osasun fisiko eta emozionala* edo batxilergoko *jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna*, beste ikasgaien ikasle taldeak aplikaziora jaso ezinik jarraitzen dugu.
-  Osasun profesionalekin lehen urratsa eman den arren, adostu gabe jarraitzen du Osakidetzarekin Eusfit Mugiment ekimenaren bidez jasotako txostenak pediaren esku jartzeko bidea. Era berean, datuak ikerlarien erabilerako Open Data-n uzteko asmoa dugu, Eusfit Mugiment sistema sendoa izango denean.

7.- Koordinazioa

Mugiment elkarlaneko proiektua den heinean, erakunde desberdinekin harremana izatea ezinbestekoa da.

-  Hauek dira burututako jarduketak aipagarrienak:
 - Tokian-tokiko sareetan 94 bilera egin dira.
 - Idazkaritza teknikoaren bilerak: 46, asteroko bilerak, presentzialak gehienak.
 - Mugiment Ekintza Planarekin erlazionatutako 27 bilera egin dira, presentzialak.



- Lurralde mailako bilerak: 2024an egindako lurralde mailako bileran aipatu bezala, ez da lurralde bilera gehiagorik aurreikusten printzipioz. Planak zehaztuko du bilera dinamika zein izango den.

-  Hezkuntza Sailarekin koordinazioa hobetzen hasi da Eusfit Mugiment garatzeko.
-  Euskadiko Plan Onkologiko Integralaren sorreran parte hartu genuen, “Zaintzaren jarraipena” izeneko lehentasunezko lan-taldean. [Plana](#) urriaren 15ean aurkeztu zen.
-  Ekainean, [Bizkaiaiko Osasun Mentaleko sarean](#) izan ginen Mugiment Ekintza Plana, Orientazio Zerbitzuak eta Eusfit Mugiment sistema azaltzen.
-  Adinekoen Arreta Planaren jarduera fisikoari buruzko esku-hartzearen berrikusketan dihardugu Osakidetzarekin.
-  Gipuzkoako Foru Aldundia garatzen ari den Gipuzkoan Jarduera Fisikoa Ikuspegi sistemikotik sustatzea 2025 proiektuan parte hartu dugu.
-  Lehen hurbilketa bat egin da Araba ESIko zuzendaritza-taldearekin, jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak partekatzeko eta etorkizuneko lankidetzak hitzarmenak ahalbidetuko dituzten bideak jorratzeko.
-  Aurten sortu den Arabako Osasun Mahaian parte hartzen gabiltza Gasteizen eta landa-eremuan osasun-sare komunitarioak bultzatzeko, genero-ikuspegia eta ekitatea txertatuta.
-  Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin elkarlana hobetu behar dugu, Mugiment Ekintza Planaren garapena honetarako aukera ona izan daiteke.

8.- Komunikazioa

Komunikazioa garrantzitsua da Mugiment egitasmoan, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko tresna ere badelako.

-  [Baliabideen atalean](#) 5 baliabide berri gehitu dira: 4 txosten eta irudi bat.
-  Webguneko harremanetarako postontziaren bitartez 46 pertsonen zalantzei erantzuna eman zaie (24 ordu pasa baino lehen), iaz baino 10 gutxiago.
-  Webgunean orientazio zerbitzuen atala berritu da, [testak](#) azpiatal berria gehituz. Aldaketa hauek EJIE eta Saileko informatika arduradunekin elkarlanean.
-  X gizarte sarea erabiltzen jarraitzen dugun arren, gero eta garrantzi gutxiago eskaintzen diogu, sare bera gure esparruan ahuldu delako. Estatistikak jasotzeko zailtasunak ditugu eta beraz, txosten honetako 13. puntutik kendu dugu.



-  Eusfit Mugiment sisteman parte hartzen ari diren irakasleekin harremana, behar baino txikiagoa da. Irakasleekin harremantzeko komunikazio estrategiaren inguruan hausnartzen ari gara.

9.- Formazioa

2025ean formazio ezberdinak egin dira Mugiment Idazkaritza Teknikoak antolatuta. Era berean beste prestakuntza jardura ezberdinetan parte hartu dugu hizlari bezala.

-  Orientatzaileen II. Topaketa antolatu dugu, orientatzaileek modu oso positiboan baloratzen dutena.
-  Kirol Eskolaren elkarlanean, jarduera fisikoa egitea sustatzeko eta mantentzeko estrategia psikologikoak webinarra antolatu dugu.
-  Santurtziko Udalak antolatuta, El deporte como motor de desarrollo y bienestar jardunaldian parte hartu dugu hizlari bezala.
-  Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien eta Humanitate Zientzien fakultatean, Lehen Hezkuntzako graduiko ikasleei jardura fisikoa eta osasunari buruzko hitzaldia eskaini dugu.
-  Arabako OSiko ospitalea erreferentziatzen duten eta orientazio zerbitzua daukaten udalerrietako orientatzaileekin Arabako Unibertsitate Ospitaleko bihotz-errehabilitazio zerbitzura bisita egin dugu erabiltzaileen errehabilitazio prozesua ezagutzeko.
-  Osakidetza Lehen Mailako Arretako Zuzendariordetzak gonbidatuta Eusfit Mugiment sistema azaldu diegu.
-  Berdintasun ministerioak antolatutako *sensibilización en igualdad de género* ikastaroa egin dugu, 40 ordukoa.

10.- Dirulaguntzak

Kirol Kontseilu Gorenak onartu egin du «Kirol Sektorea Sustatzea» 26. osagaiaren esparruan autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutua duten hiriek kudeatutako kredituak banatzeko lurralde-banaketa eta irizpideak baimentzeko ebazpena, 8.050.000,00 €-koa 2024ko aurrekontu-ekitaldian, «Kirol Sektorea Digitalizatzeko Plana» egiteko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) esparruan.

Besteak beste, tokiko kirol egitura eta kirol/komunitate espazioak egokitzeko eta hobetzeko jarduerak finantzatzeko dira, landa-inguruneetan ariketa eta jardura fisikoa egiteko programak ezartzen direnean, landa-eremuetan jardura fisikoa sustatzeko sare koordinatu baten (PAFER) parte izateko.



-  Euskal Autonomia Erkidegoari 170.761,82 € esleitu zaizkio eta diru hau Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzen agindu baten bidez banatuko da 2025ean, jarduera fisikoaren orientazio zerbitzua duten 20.000 biztanletik beherako udalerriei zuzenduta.
-  Agindua, 2025eko ekainaren 4koa, zeinaren bidez 20.000 biztanletik beherako udalerrietan jarduera fisikoarekin lotutako orientazio-zerbitzuak ezartzeko eta mantentzeko tokiko kirol- eta komunitate-egiturak eta -espazioak egokitzera eta hobetzera bideratutako 2025eko dirulaguntzaren ebazpena argitaratu da.
-  Onuradun izan zitezkeen 30 udalerritatik, 10 udalerri bakarrak egin dute eskaera.

11.- Ikerketa

Mugiment egitasmotik bultzatutako ikerketak eta idazkaritza teknikoaren parte-hartzea izan duten lanak hauek izan dira:

-  Global Matrix 5.0 txostena osatu dute MU, EHU, Deusto, Euneiz eta EJK elkarlanean Neritzek Albisuaren (Mondragon Unibertsitatea) gidaritzapean.
-  Osakidetzak eta EHUKo kirolaren zientzietako fakultatea burutzen ari diren Edonola ikerketan lagundu dugu.
-  Donostiako Onkologikotik jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuetara erabiltzaileak bideratzeko prozeduraren diseinuan parte hartu eta gero, proba pilotua abiarazi da Gipuzkoako 6 udalerritan.
-  Euskampus Fundazioak bultzatutako ONKO-ON misioak antolatutako kokreazio-tailerretan parte hartu dugu. Ekimen honen helburua minbizia duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, jarduera fisikoa, elikadura eta laguntza psikologikoa tratamendu onkologikoan modu integralean txertatuz.
-  Ageing On ikerketa taldearekin lankidetzan hasi dugu etorkizunean ikerketa lan ildo berriak abiatzeko.



12.- Zeharkako egitekoak


Zeharkako egitekoetan berdintasuna, hizkuntza eta ingurumena ditugu jomugan:

12.1.- Berdintasuna

Ejko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak berdintasunaren inguruko konpromisoak ezarri ditu kudeatzen ari diren programa guztietan, horien barne Mugiment egitasmoa. Jarraian azaltzen da 2025eko konpromisoak eta betetze maila:

GOBERNU ONARI LAGUNTZEKO PROGRAMAK	EKINTZAK	BETETZEA
BG3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	Pertsonei buruzko datuak jasotzen baditugu, ahal bada bereiztu sexuak.	Bete da.
BG5. Prestakuntza ematea erakunde publikoetako langile guztiei, baita politikariei ere.	Idazkaritza teknikoaren kidei honen berri eman.	Bete da. ITko kideek formazio ezberdinak egin dituzte berdintasunari buruz.
BG6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	Pertsonei buruzko datuak jasotzen baditugu, ahal bada bereiztu sexuak.	Bete da.
BG8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	Irudiak eta testuak zaindu. Idazkaritza Teknikoari proposatzea Mugiment ordezkaria ahal den guztietan emakumea izatea. #EmakumeAktiboak traola erabiltzea..	Bete da eta Twitterren garrantzi berezia eman zaio #EmakumeAktiboak traolaren bidez. Malen Ruiz de Azua izan da idazkaritza teknikoaren ordezkaria. Zenbait dokumentu zuzendu dira.
BG11. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.	Mugiment ekintza planean	Betetzen ari da planaren garapenean.
BG12. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Kontratoetan aintzat hartu	Idazkaritza Teknikoaren kontratoan aintzat hartu zen.
BG13. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea	Mugiment sareetan tokian tokiko berdintasun eragileak gonbidatu.	Sare gehienek ez dute izan berdintasun eragilearen parte hartzea.
BG14. Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua izan dezaten sustatzea.	Emakumeen parte hartzea idazkaritza teknikoan.	Bi emakumeek eta gizon batek osatzen dute Idazkaritza Teknikoa.
BG15. Incorporar la perspectiva de género en los espacios de participación .	Blogarien artean emakume baten parte hartzea lortzea.	Malen Ruiz de Azua eta Dalda Barayazarra aritu dira blogari lanetan.

Orientazio zerbitzuetako erabiltzaileen sexua portzentajetan adierazita:





12.2.- Hizkuntza

-  Euskara da idazkaritza teknikoaren eguneroko hizkuntza eta administrazio gehienekin harremanak euskaraz dira.
-  Oraindik zailtasunak dauzkagu EAEko eragile batzuekin euskaraz egiteko.

12.3.- Ingurumena

-  Bilera presentzialetara egiten diren desplazamendu ia-guztiak desplazamendu motorizatuekin egin dira.
-  Ez dugu erabiltzen digitalak ez diren euskarri materialik.



13.- Adierazleen taula

Hauek dira 2025eko adierazle aipagarrienak. laz izandako emaitzekin alderatzen dira.

	Proposatutako ekintzak	2025
1	JFOZ lanean: urte bukaeran dauden orientazio zerbitzuak.	54 (+7 / +% 14,9)
2	JFOZetan orduak: orientazio zerbitzuetan eskainitako ordu kopurua astean.	578 (+ 76,5 / +% 15,25) 9,2 batez beste
3	JFOZetako erabiltzaileak: orientazio zerbitzuetan artatutako pertsona kopurua.	4.415 (+742 / +% 20,2) 81,75 batez beste
4	JFOZetan hitzorduak: orientazio zerbitzuetan izandako hitzorduak.	12.747 (+ 2.576 / +% 25,3) 240,5 batez beste
5	Deribazioak Osakidetzatik: orientazio zerbitzuetara Osakidetzatik egindako deribazioak.	4.620 (+1.090 / +% 20,2) 85,5 batez beste
6	Mugiment sareak: urte bukaeran martxan daudenak.	39 (+6 / +% 18)
7	Sareetako bilerak: sareetan idazkaritza teknikoa egondako bileretan (bilera agiri kopurua).	94 (- 40 / -% 30)
8	Ikastetxeak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten ikastetxeak.	57 (=)
9	Irakasleak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten irakasleak.	121 (+10/ +% 9)
10	Taldeak: Eusfit Mugiment ekimenean erregistratutako ikasle talde kopurua.	377 (-12 / - %3,09)
11	Udalerriak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten ikastetxeen udalerriak.	38 (+5 / + % 15,15)
12	Neurketa kopurua: Eusfit Mugiment baitan egindako neurketa kopurua.	5.343 (- 596 / - %10,04)
13	Web inprimatzeak: webgunearen bidez lortutako inprimatze kopurua.	38.245 (+ 7.039/ +% 22,8)
14	Sarrerak: blogean argitaratutako sarrera kopurua.	65 (+3/ + %4,83)
15	Irekierak: buletinaren irekierak.	5.347 (-316 / - % 5,59)



14.- Laburpena

Hauek dira 2025ean egindakoren mugarri aipagarrienak:

-  **Mugiment sustatzaileak:** 128 sustatzaile gara, iaz baino 4 gehiago baina izaera hau desagurtu egingo da. Hemendik aurrera, Mugiment Ekintza Planean jarduera fisikoa sustatzera bideratutako konpromisoak hartuko dituzten eragile oro izango da sustatzaile
-  **Mugiment Sareak:** tokiko 41 sare daude martxan (iaz baino 8 gehiago), gehienak egonkortuta eta autonomiaz lan egiteko gai direnak.
-  **Orientazio Zerbitzuak:** zerbitzu hauek gora egin dute (54 guztira) eta arlo desberdinetako osasun profesional gero eta gehiago dira pazienteak orientazio zerbitzuetara bideratzea eskatzen dutenak.
-  **Eusfit Mugiment:** sistemaren hazkundera geldialdia egon da eta Hezkuntza Sailarekin koordinazio-arazoez dirauten arren, aplikazioan hobekuntzak txertatu dira.
-  **Koordinazioa:** beste sail eta eragile batzuek kontuan hartzen gaituzte jarduera fisikoarekin lotutako gaiak jorratzeko orduan.
-  **Mugiment ekintza plana:** 2025eko mugarri nagusia izan da planaren aurkezpen publikoa eta planaren garapenean lehen urratsak eman dira.
-  **Komunikazioa:** X gizarte sarearen gainbehera dela eta komunikazio estrategia birbideratu nahi da.
-  **Formazioak:** Orientatzaileen II. Topaketa antolatu da, parte-hartzaileek oso modu positiboan baloratu dutena.
-  **Dirulaguntzak:** Eusko Jaurlaritzak jasotako PAFER dirulaguntza, 20.000 biztanle baino gutxiago eta orientazio zerbitzua duten 10 udalerritan banatu da.
-  **Ikerketak:** Global Matrix 5.0 txostena osatzen ari da.
-  **Berdintasuna:** ekimen guztietan emakumeen parte-hartzea oso nabarmena da, izan erabiltzaileak, izan kudeatzaile edo sustatzaileak.

2025



Ez dugu lortzen Eusfit Mugiment sistema kontsolidatzea. Irakasleekin komunikazioa hobetu behar dugu, baita, beste sailekin koordinazioa.

2025



Mugiment Ekintza Plana
Orientatzaileen II. topaketa
Pauso Erronka digitala